# BARREN

20006 maialaren 12a
VIII. urtea - **320. zkia**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**

**ERREPORTAJEA**

a

an

**GEHIGARRIA**

**BERBETAN**

Joseba Esnaola margolaria

**KIROLA**

iesken

Espainiako Eskubaloi Txapelketa Elgoibarren



# Kirola eta osasuna anaia bikiak

# JATETXEIX

*Olaso Industrialdea*
*Olasope, 2 • TeL 943 74 01 08*
*12070 ELGOIBAR (Gipuzkoa)*



*Eguneko menuak,*
*despedidak, lunchak,*
*enpresa bazkariak eta afariak,*
*bataioak, jaunartzeak*
*a ezkoiztzak.*




T lry vf BEREL1:1KAI ·KER.1N

f

*150 pertsonarentzako jantokia zuzeneko musikarekin girotua*
*Aparkalekua*

5111



**ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA**

# Musian

/kasketak bukatu eta kanpuan eindako praktiketatik itzuli ostian, gauza dexente aldatu dia nere bizitzan. Haueta-ko bat musian jokatzen ikastia izan da.

Aurretik, saiauta zaozen lagunak karta joko hau erakusten, baina egixa esan ez nion interes askorik ipintzen, ez jatalako interesgarrixa suertatzen. Aurtengo gabonetan, berriz, engantxauta gelditxu naiz. Kuadrilakuak jokatzen hasi zian baten, beste behin esplikatzeko eskatu niuen eta oinguan, inungo arrazoi argirik gabe, joko honek dakan txispia ezautu dot.

Hartzen dian erabakixen eta bikotiakin dauan konpenetrazivan garrantzixak dela-eta karta joko hau berezixa da gainontzekuen artian. Zerbaitxen alde gogor jokatu eta kartak mahai gainian jarri aurretik dauan tensivak ez daka parekorik. Bestiek zer daken ikusi ondoren datoz frustraziva edo satisfaziva, tristuria edo poza, aspertzeko aukerarik ematen ez daban jokuan.

**"Harlien dian erabakixen eta bikotiakin dauan konpenetrazivan garrantzixa dela eta karta joko hau berezixa da gainontzekuen artian"**

Ostirala ailegau eta hor dabil buruan bueltaka gabian jokatu biharreko mus partidatxua. Zeozer larrixa pasau bihar da ostiralero jokatzen doun bospasei lagunok elkartu ez gaitxezen. Automatikua da; lokalera heldu, musikia ipini, mahaixan bueltan jarri eta musian hastia. Erlijio antzerako bat izatera ailegau da. Nik uste dot jokatzen ez daben kuadrilako gainontzekuek ixa-ixa gaixotzat hartu gaitxuztela. Izan ere, ordu dexente pasatzen douz `mus', `pare', `hordago' eta abarren artian.

Esan bezela, hasi berrixa naiz oindiok, baina badakat tabernetan antolatzen dian txapelketa horietako baten parte hartzeko gogua. Ohitxuta ez gauden norbaitxen aurka jokatziarren eta gure mailia zelakua dan probatziarren gehixenbat. Lagunek diotenez segitxuan kaleratuko gintxuzkete, halako jendia urtietan dabilelako elkarrekin musian. Hala ere, ez dakat probau gabe geratzeko asmorik.

Gainera, sariren bat irabaziz gero, hainbat eta hobeto, zeren guk ez dogu dirurik jokatzen. Hala ere, `hordaguak' errezegi ez botatzeko gure apostu txikixak itxen douz: galtzailiak irabazliari fregau bat zor dio. Lokala dakagunetik afari dexente itxen douz bertan. Horrek, fregaua ere in bihar izaten dala esan nahi dau eta boluntarixorik oso gutxitan aurkezten danez, musian galtzaile izan danak garbitxu bihar izaten ditxu platerak eta gainontzeko ontzixak. Badakagu, beraz, lagun artian aritxu arren, musian irabaztera jokatzeko arrazoirik.

Gaur ere ekingo diogu bada, azken finian elkartzeko aitzaki bezela erabiltzen dogun jokuari eta fregaurik in gabe gelditzen banaiz hainbat eta hobeto.

*Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kotaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.*

## B , Birrak eta Barreak




1KOKOE 2000910 1

# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
z- 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.com
**Helbide** informatikoa:
www.ihardun.com/barren

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko lzarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Eli Aizpuru |
| KAZETARIAK | Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea |
| PUBLIZITATEA | Andoitz Agirregomezkorta |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADMINISTRAZIDA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rata Alvarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORATZAILEAK | Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Attzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, lon Gurrutxaga, KOKOE, lmanol Larrañaga, Aintzane Larrea, lon Loiola, Ongarri Zine Kluba, iñigo Olaño, Jon Peli Uriguen, lban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre. |
| BANAKETA ARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| EUSKARA ZUZENTZAILEA | lbon Arriola |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop, E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura*

*gizarte-ekintza*
*obra social*

DANOBAT

SGOITI
GRUPO DANOBAT


## Mendaro hil da

Konbentoa bota, baserriak bota, piszinak eraiki, udaletxe postmodernoa eraiki, industrialdea zabaldu, txaletak egin, erreka hormigonatu, etxeak egin eta egin, parking-ak egin... ziudadea helburua, materialismoak, kapitalismoak.

Mendarok arimarik baduela uste dugunok, ez gaude ados hainbeste eta hainbeste konturekin. Badirudi, aurrerapenaren, progresuaren (ba ote horreIakorik?) bidean, herriek herri izateari utzi eta ongizate4ren zibilizazioari hide eman behar diotela. Ongizate hori benetan zalantzan jartzekoa ez ote den begiratzeko astirik izan gabe, noizbait martxan jarritako makineria itsuak, bere burua nola hornitzen duen ikus dezakegu gaur egunean, bururik gabe, arimarik gabe, herria txikituz.

Hainbeste eta hainbeste urtetan udaletxerik izan gabe, Mendarok herri izateari hain ondo heldu dionean, paradoxa dirudi Udala duenetik Mendaroren bilakabideak damaigun frustrazio sentsazioak.

Makineria geratu beharra dago: anerako gogoa duen jendeari, herriaren alde xoxik jaso gabe duena emateko prest dagoenari eman behar zaio hitza. Honelakoak behar dute izan agintariek, herriarentzat eredu eta ez lotsakizun.

Gazteok bederen horretaz konturatzen gara eta ez dugu utziko poltsiko berotzaileek herria amildegirantz gida dezaten.

**Mendaroko Plataforma Aktiboa**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazItakoen erantzukizunik. Eskulitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

## KEXAK

• Bizilagun batzuk San Pedro auzoko bidean "Ustarri" etxetik ur-deposito munizipalerainoko pasabide publikoa itxi dutela salatu nahi dute. "Santa Klara kaleko bide honek etxebizitzetara ematen du eta hortik ibili behar dugunok, bidea itxita aurkitu ohi dugu. Dagokionari konpontzea eskatu nahi diogu".



• San Lorentzo auzoko ‘Urki' baserrikoek honako kexa hau helarazi digute. "Etxerako bidea ‘todoterrenoz' bakarrik egin dezakegu, bestela ez baitaukagu pasabiderik. Bai Udalak eta bai DEBEMENek errepidea egitea ukatu ziguten aurrekonturik ez zegoelako, baina arazo hau konpondu beharra daukagu. Nik kanpoan lan egiten dut eta haurrak ere neurekin batera eraman behar izaten ditut eskolara Elgoibarren geldituz gero okerrago baitaukagu hauek igotzeko eta jaisteko".

## TXALOAK

• Emakume batek deitu digu maiatzaren 7an, domekan, ospatu zen konfirmazio elizkizuna dela- eta honako hau esateko: "Meza zoragarria izan zen. Aldi berean, Pagola bikarioa zoriondu nahi nuke homilia ederra eskaini baitzigun".

• Ume txikiak dituzten hainbat gurasok Plaza Txikiko kolunpioa konpontzeko lana hartu duena txalotu nahi luke-te. Egun batzuetan argazkian dagoen bezalaxe egon ondoren, norbaitek konpondu baitu kolunpioa. "Arratsaldetan umiekin egoten gera Plaza Txikixan eta kolunpixo bakarrakin ez ginan moldatzen. Segitxuan konpondu dabe eta horregatxik eskerrak eman nahi ditxugu".




ATX117XIMAIKA IV4zittotz 74.04,44

**BEGIRALEAK behar ditu UDARAko**

**ESKATZEN DA**

- 18 urte baino gehigo edukitzea
- Euskaraz jakitea
- Elgoibartarra izatea
- Haurrak eta gazteak gustuko izatea
- Lan taldean ondo moldatzea

Atxtxiamaika
BEGIRALE TALDEA

Izena emateko azken eguna:
Ekainaren 9

Curriculumak hidaltzeko:
Elgoiharke Izarra H. E.
Ubitarte 4, behea
(Tel. 943 74 18 26)

# Kirolaren garra tzia
## eg ngo bizi duan

Argiñe Gabilondok ia 6 urte daramatza Mintxetako gimnasioaren arduradun gisa, ireki zutenetik, alegia. Gimnasioaren eskaintza eta erabiltzaileen ezaugariak izan ditugu hizpide, besteak beste, berarekin izan dugun elkarrizketan.

Argiñek esan digunez 14tik 70 urtera bitarteko jendea inguratzen da Mintxetako gimnasiora, bai mutilak eta bai neskak: "Muskulazio gelan mutilak dira nagusi, baina gero eta neska gehiago etortzen da. Bestalde, aerobik talde askotan neskak eta mutilak nahastuta daude".

### Gimnasiora joateko arrazoiak

Jendea gimnasiora zeren bila edo zertarako joaten den galdetu diogunean, arrazoi bat baino gehiago aipatu dizkigu Argiñek: "Gaur egun gimnasiora etortzeko arrazoi nagusienetako bat ondo pasatzea da, tarte atsegin bat pasatzera etortzen da jendea. Taldeetan daudenek lotura handiak dituzte elkarrekin, erraz egiten baitira lagunak. Asko ni hasi nintzenetik daude eta ia familiakoak garela esan daiteke, afariak ere egiten ditugu elkarrekin. Bestalde, "stressa" kentzera datozen asko daude". Osasun arazoak sendatzera edo errehabilitazioa egitera jende kopuru handi bat joaten dela aipatu digu, "bizkarreko minak eta belaunetako lesioak oso ohikoak izaten dira. Beste batzuk kolesterola bajatu nahi izaten dute. Orokorrean, sendatu ostean ere etortzen jarraitzen dute hauek guztiek, gustatu egiten baitzaie. Beste talde bat menopausia pasa duten emakumeena da. Hauentzat gozamen bat da gimnasia egitea, eta autoestimua igotzeko ere balio die". Azkenik, motibo estetikoek bultzatuta joaten direnak aipatu dizkigu, "orain dela urte batzuk arrazoi nagusienetako bat zen hau, baina estetikaren boom-a gutxituz joan da. Gaur egun kirolaren kultura da hedatu dena, osasunari eta aisialdiari lotuta edo garrantzia emanez".



*Argiñe Gabilondok sei urte daramatza Mintxetako gimnasioaren arduradun gisa..*



### Estetikaren obsesioa

80. hamarkadatik aurrera 'estetikaren boom' deiturikoa nagusitu zen gizartean. Publizitateak, zineak, eta batez ere modak ezarritako ereduak imitatzeko joera zabaldu zen. Itxura fisiko jakin bat arrakastarekin lotu zuten. Honekin batem kirola egiten hasi zen jendea, publizitateak erakusten zituen gorputz perfektoak lortzeko modu bakarra baitzen. Edergintza zentruen eta produktuen gorakada ere garai berean gertatu zen. Argiñek azaldu digunaren arabera, badirudi kirola eta estetika edo itxura tisikoaren arteko lotura desagertzen ari dela, "Mintxetan daramatzadan ia 6 urte hauetan jendeak irail eta urrian izena eman eta urte guztian zehar etortzeko ohitura du. Uda hurbil dela-eta bi hilabetetarako izena ematen dutenak gutxiengoa dira. Bainujantzian luzitu ahal izateko kiloak jeistera edo giharrak lantzera etortzen dira hauek, baina helburu hori horren denbora tarte labuntan lortzea oso zaila da.

### Gimnasioko eskaintza

Mintxetako gimnasioa erabiltzeko bi modu aipatu dizkigu Argiñek, "talde baten izena emanez edo bestela, bakarka erabili daitezke ginmasioko makinak. Jendiak nahiago du taldeetan sartzea. Hauetan bi alor lantzen ditugu, sistema kardiobaskularrari, hau da, bihotzari dagozkion ariketak batetik, eta tonifikazioa edo giharrak indartzea bestetik. Bihotza aerobika eta ‘step' eginaz lantzen da, eta tonifikazioa, berriz, pisuak jasoz, gomekin eta makinekin. Taldeetako jendearekin astean 3 saio egiten- ditugu. Egun batean sistema kardiobaskularra lantzen dugu. Bigarren egunean tonifikazioa eta hirugarren egunean biak nahasian dituen zirkuito bat burutzen dugu, azken honi `fitness' deitzen zaio". Taldeetaz aparte edozein egunetan joan daiteke gimnasiora. Argiñek makina guztien funtzionamendua eta bakoitzak gorputzeko zein atalentzako balio duen azaltzen

# KIROLA EGrir Fko GOMI_ND1OAK

*EGURALDI ONAREN ETORRERAREKIN NEGUKO ARROPA ASTUNAK ARMAIRUAN GORDE, ETA LARRUAZALAK URTEKO LEHEN EGUZKI IZPIAK JASOTZEN DITU. HONEKIN BATERA KIROLA EGITEKO IRRIKA EDO GOGOA IZATEN DUGU GEHIENOK. BAINUJANTZIETAN SARTU BEHARRAK GIMNASIORA JEIVDE GEHIAGO ERAKARTZEN DUEN AZTERTU NAHI IZAN DUGU ASTE HONETAKO ERREPORTALIN, BAINA IKUSIAK IKUSITA, BADIRUDI ESTETIKAREN BOOM-AATZEAN GERATZEN ARI DELA. ORAIN BESTE ARRAZOI BATZUK DIRA JENDEA GIMNASIORAEDO AEROBIKA EGITERA BULTZATZEN DITUENA. BADIRUDI, ITXURAREN ESKLABUTZA GAINDITU DUGULA ETA KIROLAREN BENETAKO ONURAK AURKITU DITUGULA.*



du, "garrantzitsua da aparatuen teknika hasieratik menperatzea eta ulertzea". Ondoren, bereziki zerbait landu nahi izanez gero, bizepsak, bularrak, ipurmasaila... Argiñeri eskatzea besterik ez dago. "Gorputzeko zein atal landu nahi dituen hitz egiten dugu, eta taula bat prestatzen diot. Taulan, erabiltzea komeni zaizkion makinak, beroketa eta estiramendu ariketak eta ariketa bakoitza zenbat denboraz egin behar duen argitzen dut. Honetaz gain, kirol bakoitzerako entrenamendu bereziak ere prestatzen ditut".

ZENBAIT EKINTZETAN GASTA DArTEZKEEN KALORIEN TAULA

| EKINTZA | lmin. | 20min. | 3Ornin. | 40min. | 50min. | 90min. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lo egin | | 26ka1 | 40kal | 53kal | 66kai | 119kal |
| Tente egon | | 32kai | 47ka1 | 63kai | 79ka1 | 142kai |
| Bizkor korrika egin | 15'6kai | 312ka1 | 467ka1 | 623ka1 | 779ka1 | 1402ka1 |
| Sprinean | 21¯7km | 433ka1 | 650m | 866ka1 | 10831ca1 | 1949ka1 |
| Bizikletan (8 lun/h) | 5'51,1d | 111kal | 166ka1 | ⁹⁹2ka1 | 277ka1 | 499kai |
| Bizikletan (211an/h) | 11'8kai | 235kal | 353kat | 470kai | 588ka1 | 1058kai |
| Eskailerak jaltsi | 7'4kal | 148kai | 2⁹⁹ kal | 29611a1 | 370ka1 | 666ka1 |

75 kg. dituen pertsona bat kontutan hartu da.

Kirola egitea osasungarria dela, ez dago zalantzank, baina gaizki eginez gero, alderantzlzko efektua izan dezakeela gauza jakina da. Hori dela-eta zenbait gomendio bildu ditugu kirola behar bezala egiteko eta mita faltsu batzuk baztertzeko:

Kirola egiten hasi aurretik artikulazioak eta sistema kardiobaskularra behar bezala berotu behar dira (gutxienez 10 minutu). Ondoren, 40-45 minutuz egin behar dira ariketak. Azkenik, errekuperazioan estiramenduak egin.

Astean 2-3 egunetan komeni da kirola egitea, jarraipena mantendu behar da. Ez du balio egun batean esfortsu handia egiteak beste 15 egunetan ezer ere ez egiteak. Progresio bat mantendu behar da. Gorputzak agintzen diguna irakurtzen jakin, atsedena hartu behar denean adibidez.

Gure gorputzaren egoera fisikoa eta bere mugak ezagutzea ezinbestekoa da. Medikua bisitatzea ez legoke gaizki edozein zalantzaren aurrean. Bestalde, pulsometro bat laguntza handia izan daiteke. Gehinezko pultsasioak ateratzeko tormula erraza da (220-norberaren adina)

Gure helburua pisua bajatzea baldin bada: aparatu kardiobaskularra landu behar da. Bizikletan ibiltzea, korrika edo oinez eta igeriketa dira kirolik gomendagarrienak. Baina pisua gaitzeko 30 minutu baino gehiagoko saioak egin behar dira erdi mailako intentsitatea mantenduz.

**ELiKADURA:** %60 karbohidratoak, %25 protelnak, %15 grasak. Hauek dira dieta egoki baten portzentalak. Sasoi honetan, gainera, barazkiek eta egoskariek (legunbreek) garrantzi berezia dute. Hestebeteak eta fnjitutako janariak, berriz, baztertzea komeni da.

**HIDRATAZIOA:** oso garrantzitsua, batez ere uda sasoian. Urak izugarrizko garrantzia du organismoan, %90-.st ura barkara. Ariketa fisikoekin gorputza berotu egiten da eta hozteko daukan mekanismoa izerdia botatzea da. Azalaren tenperatura orekatzeko balio du, lehenago berotzen dena baita azala. Funtzio horri traba jarriz gero: arropa gehiegiedo transpirazio txarrekoak, gorputzak behar baino izerdi gehiago kanporatzen du eta deshidratatzeko arriskua dago. Ur asko edan, ariketen aurretik, bitartean eta ondoren, baina trago



IDDA ATARIAN GAUDELA ETA...

# Kirol gehiago egiten al duzu urte sasoi honetan?



**YOLANDA ALVAREZ**

**29 urte, etxekoandrea**

Ez, ez daukat kirola egiteko denbora librerik. Lehen atletismoa egiten nuen, baina ez urte sasoi honetan bakarrik, urte guztian baizik.



**URKO LIZARRALDE**

24 **urte, inekanikoa**

**Ez,** normalian ez dot itxen, kilo askorik ez dakat eta tzeko biharrik ere ez. Baina aurten Behobia-Donostia eitxeko preparau bihar naiz eta zeozer eingo dot.



**AINARA ABASOLO**

20 urte, ikaslea

Ez. Bestela urtian zihar itxen dot, baina arrazoi konkreturik gabe. Gustatzen jatalako itxen dot kirola, ez udara begira forman egoteko.



**ANGEL SANCHF/**

**43 urte, pintorea**

Kirol gehiago egiten dut eguraldi onarekin. Bizikletan ibiltzen naiz gustuko dudalako eta bide batez, tripa jaisteko aprobetxatzen dut. Lehen futbolean ere aritzen nintzen.



**PAULI PEREZ**

**43 urte, etxekoandrea**

Kirol piska bat egin behar da, bestela kiloak pilatzen diraeta. Ni urtean zehar pasiatzera joaten naiz, baina orain uda gainean dagoenez kirol gehiago egiten dut.



**JAR1 LEON**

24 **urte, kazetaria**

Urte guztian itxen dot, orduan, betiko moduan. Mintxetan ibiltzen naiz eta han betiko jendia egoten da. Nik uste dot gehixo igarri zala Gabonetako opon̄en ondoren.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %i OEKO BEHERAPENA
lita4 qqa MeMe/4 teMd444 1 6 Ineelelu.
LARRAÑAGA
AUTOESKO1A
Tel. 943 74 10 11



ikazoka 00
merkatu plazan
hezkuntza eta berri kuntza azoka
Maiatzaren 18tik 21era
DURANGO
ordutegia: ostegunetik iorunbatera 10:91natsk 14:00kon, 16:00etnik 20:{10etar. gandea 10:00etatik 14:00eu-

# ISP1LUARI BEGIRA



SCIZGib V t(..tcl' icIN 701"

**ERIZAINA**

**- Zein gaisotasun sendatzeko ahalmena izan nahi** ze**nuke? -** Sintzeritaterik eza sendatzekoa.

**- Zeren aurkako txertoa jarriko zenioke Elgoibarri?**
- Asko beharko lituzke, baina bat ipintzekotan solidaritate gehiago edukitzeko txertoa jarriko nioke.

**Eguna hasteko zeren dosi txikiak behar izaten dituzu?** Neskalagunarengan pentsatzea-edo.

**Egun tristea duen lagun bati zer errezetatuko zenioke? -** Nire konpainia emango nioke behar nauenerako.

**- Bihotzeko samina sendatzeko botikarik ba al da?**
- Denbora.

**Galtzear dagoen zein balore eramango zenuke larrialdietara? -** Jendearen arteko erlazioak mantendu egin beharko lirateke, ez ginateke hain itxiak izan behar.

**- Gorputzeko zein ataletan egingo zenuke zirujia estetikoa? -** Ez nuke egingo.

**Zerk bizkortzen dizkizu bihotz taupadak?** Musikak.

**Erizaintza emakumezkoen lanbIdea dela uste du askok. -** Jendeak hala uste arren mentalitate hori aldatu egin beharko litzateke.

**- Nori sartuko zerdoke ziztada bat ipurdian?**
- Gobernuko jendeari, bakoitzari bat, izorra daitezen.

**Zeintzuk dira gaisorik finenak?**
- Ondo informatuta daudenak. Badakitenak zer duten eta gauzak nola egin behar dituzten, hauek asko laguntzen dute.

**- Botikak errazegi hartzen al ditugu?**
- Bai, batez ere antibiotikoak.

**- Zer estaliko zenuke bendaje batekin?**
- Jendearen begiak. Horrela pertsona guztiak maila berean ikusiko genituzke.

**- Zer ikusi nahiko zenuke gasa baten atzetik?**
- Bakoitza nahi duena egiteko aske dela.

**- Odol emailea al zara?**
- Orratzei panikoa diet, hau da, niri orratzak sartzeari. Organu emailea izateko ere izena ez dut eman, baina legalki denok gara donanteak.

**- Ospatu al duzu gaur Nazioarteko Erizainen Eguna?**
- Ez da oso egun berezia, gainera lan egin behar dut asteburuan. Agian ospitalean ospatuko dut.






## • 1950ean jaiotakoen urteurreneko barkaria

1950. urtean jaiotako elgoibartarrak datorren ekainaren 10ean elkartuko dira 50. urteurrena ospatzeko. Ospalcizunetan parte hartu nahi dutenek maitzaren 22a baino Iehen eman beharko dute izena. Antolatzaileek aditzera eman digutenez, kanpora bizitzera joandako elgoibartarrekin harremanetan jartzeko zailtasunak izan dituzte. Beraz, hauei jakinaraztea eskertuko lukete. Izena emateko honako telefono hauetara deitu: 943 74 40 98 edo 943 74 08 04.

## • BARREN Ikazokan

Ikastolen ekimenez "Ikazoka" feria egingo da maiatzaren 18tik 21era Durangon.13ertan, besteak beste, hezkuntza, informatika, ikusentzunezko, hizkuntza, ikerketa, enpresa eta komunikazio esparruetako gaiak izango dira ikusgai. Beste hainbat komunikabideren artean BARRENek ere izango du bere lekua Euskara Elkarteen eta aldizkarien Topaguneak jarriko duen standean.

## • Martan da euskara lloesleenlzako Igonaldiak familia euskaldunetan' plangintza

HABEk antolatutako "Egonaldiak familia euskaldunetan" plangintzarako izena emateko epea irekita dago ekainaren 5era arte. Egitasmoaren helburua euskara ikasleei hizkuntza lantzeko edo hobetzeko aukera ematea da. Familia euskaldunen etxeetan hilabeteko egonaldiak egin ahal izango dituzte 18 eta 45 urte bitarteko gizon-emakumeek. Ikasleak 35.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko Udaleko Euskara Zerbitzura dei daiteke goizez (943 74 43 66).

# IDia Das Letras Galegas[1] jaiak ospatuko dira asteburu honetan

### Manuel Murguia idazie galiziarra omenduko dute aurten

Ganaliza Etxeak urtero antolatzen dituen `Dia Das Letras Galegas' jaiak joan den larunbatean, hilaren 6an, hasi ziren, eta asteburu honetan izango dira ekitaldi nagusiak. Egun hauetarako prestatu dituzten ekintzetan Manuel Murguia idazlea omenduko dute, galiziar kulturaren alde lan egin duen pertsona bat omentzen baitute urtero. Beraz, galiziar kultura eta gastronomia gertutik ezagutzeko aukera izango da maiatzaren 12tik 14ra bitartean. `A Carballeira' gaita taIdea izango da gaita soinuez heniko kaleak alaituko dituena. Talde hau Ourenseko Diputazioak bidali du Elgoibarrera. Bestalde, "D' Carnara" orkestrak berbena doinuak jarriko ditu. Guztira lau dantzaldi eskainiko dituzte asteburuan. Galiziar gastronomia tipikoaz gozatzeko aukerak ere izango dira. Larunbatean, hilaren 13an, honako jakiak clastatu ahal izango dira: `Pulpo a Feira', haragizko enpanada, zerri belarria, lakoi egosia eta "Santiago tarta'. Guztia `Ribeiro' eta ardoekin bustita. Jai gunea Herri Eskolako patioan kokatuko da. GaIiza Etxeko kideek herritar guztie jaietara joateko gonbitea luzatu nahi diete.



*Gaita doinuak conzungai izung0 **dira asteburuan Elgoibarko kaleetan.***

# ₁J2a° musika taldaaren emanaldia izan zen 0. Makrofestako salorik arrakastatsuena

### Datorren urterako beste jai bat antolatzen hasi dira

Joan den larunbatean, hilaren 6an, Elgoibarko 'Club Deportivo' k antolatuta I. Makrofesta egin zen Ikastolako frontoian. 12 ordu iraun zituen musika eta dantza saioak hasieran jarritako helburuak bete ditu. "Guk `Club Deportivo Elgoibar'en inguruan zarata piska bat ateratzea nahi genuen eta helburu horrekin antolatu zen I. Makrofesta. Dirurik ez dugu galdu eta lortu da zarata ateratzea, beraz, pozik gaude", esan digute antolatzaileek. Inplikazio gehiago espero bazuten ere, lagundu dieten jendearekin oso pozik daude, "batez ere Udalak, Euskadi Gazteak eta 'Club' eko behe mailetako taldeek emandako laguntza eskertu nahi genuke". Ekitaldirik arrakastatsuena `Uga'ren saioa izan zela adierazi digute, "anbiente politena berak ipini zuen eta jendea gustura egon zen. Ondoren Disc Jockeyak aritu ziren. Momenturik onena goizaldeko 1:30ean izan zen". Giro ona egon zela eta helburuak bete zirela ikusita, jadanik hasi dira datorten urterako beste jai bat prestatzen. "Datorren urterako ez gaude derrigortuta antzerako ekitaldi bat antolatzera. Urtero aldatu nahi dugu, horrela, mota askotako jendea erakartzeko".




*`Club Deportivo Elgolbar'en inguruan zarata ateratzea izan zen antolatzaileen helburua.*



## 49 gaztek konfirmazioa hartu zuten kgandean

Parmkiako 49 gaztek sendotza hartu zuten joan den igandean, maiatzaren 7an. Sendotza eliz.kizuna eguerdiko 12:00etan izan zen Parrokian katekesiko mezaren ostean. Bertan Gipuzkoako elizbarrutiko bikario nagusia den Jose Antonio Pagola izan zen o.spakizun burua. Konfirmazioa, gurasoen erabakiz jasotako bataioari ben¯iz baietz esatea da. Uraren liturjia, eskuak buruan jartzea eta bekokia olioz igurtz.itzea izan ziren egin beharreko hiru pausoak eta ondoren, sendotzari baietz esan zioten 49 gazteek. Elizkizunean gazteez gain neska-mutilen gurasoak eta senideak zein eliztarrak elkartu ziren.



## Lopez de Lacalleren erahilketaren aurkako konlzentrado isila egin zen hilaren 8an

Joan den astelehenean, maiatzaren 8an, 200 lagun inguru bildu ziren Plaza Handian J. Luis Lopez de Lacalleren erahilketaren aurka protestatzeko. Udaletxe aurrean elkartu ziren elgoibartarrak eguerdiko 12:00etan eta kale agerraldi isila egin zuten 15 minutuz. Elizako kanpaiekin batera txalo zaparrada batekin amaitu zen *El Mundoko* kazetariaren hilketa salatzeko Ibarretxe lehendakariak deitu zuen kontzentrazioa.

## Nathalia Mellado ETB 2ko "La Primera Noche" saioan izan da



Nathalia Mellado abeslari elgoibartarra ETB 2ko "La Primera Noche" saioan agertuko da gaur, maiatzak 12, gaueko I 0:00etan. Lorena Bernalek eta Patxi Alonsok aurkeztu zuten saioan, beste abeslari batzuekin lehiatu behar izan zuenn Nathaliak. Malu kantariaren "Duele" abestia eskaini zuen programan. Euskal Telebistan, saioko aurkezleekin ezezik, beste aurkezle batzuekin egoteko eta argazkiak ateratzeko parada ere izan zuen Nathaliak.

## A-8 autopista doan izateko lan taldea sortu nahi da Elgoiharren




"A-8 doan Akordio Soziala" taldeko bi kidek autopistari buruzko hitzaldia eman zuten joan den maiatzaren 4an Kultur Etxean. Talde honen helburua kontzientziazio lana egitea da, batez ere A-8 autopista pasatzen den herrietan. Elgoibarren A-8aren doakotasuna bultzatuko duen talde bat sortzea proposatu zuten. Herrietan informazio sarea sorrzeaz gain, instituzioetara ere helarazi nahi dute arazoa. Omingoz, informazioa Gaztetxera bidaliko dute eta honen inguruan zerbait gehiago jakin nahi duenak bertara jo dezake. Bide batez gogorarazi zuten ekainaren 12an Inpago eguna' izango dela eta aurrerantzean ere hainbat ekintza antolatzeko asmoa dutela.

## Martxan dira lArigera' proiektuaren euskarazko tertuliak eta trikitixa ikastaroa

'Arigera' proiektuak antolatuta euskarazko tertuliak eta trikitixa ikastaroa hasi dira aste honetan. Tertuliak Toletxe tabernan egingo dira hamabostean behin eta 3 eta 6 lagun arteko 10 talde daude guztira. Eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko aukerarik ez dutenek ordubetez euskaraz hitz egin ahal izango dute. Bestalde, maiatzaren 9an, asteartea, trikitixa ikastaroa hasi zuten 20 lagunek eta ekainaren 20ra arte arituko dira dantzan.



MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA

# 2000/2001 1KASTURTEA
# HEZ1KETA Z1KLOAK

## GOI MAILA (A eta D ereduak)

- PROIEKTU MEKAN1KOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZ1OA
- 1" • INDUSTR1 EK1POEN MANTEN1MENDUA

## ERDI MA1LA (A eta D ereduak)

- MEKAN1ZAZIOA

**INFORMAZIOA:**
San Roke Auzoa, 1 - Elgoibar, Gipuzkoa
Tel.: (34) 943 74 41 32 - Fax: (34) 943 74 41 53
E-posta: amaia@fmh.es

***Maiatzaren 18an ateak zabalik***
***Arratsaldeko 19:00etan***





AENOR
Onalulako enpresa
ER-063-i1,0

***Izena emateko epea: Ekainaren letik 12ra, biak barne***



MAIATZAK 12, OSTIRALA
19:00 laurtiketa eta Galiziako jakien dastaketa.
22:30 • eta "Queimada" dastaketa.

MAIATZAK 13, LARUNBATA
**12:00 'A** Carbalieira' gaita taldearen kalejira Urasandin
13:00 Galiziar janarien dastaketa Herri Eskolan.
13:30 'D' Camara' taldearen saioa
**16:30** Umeen jolasak. (Sariak izango dira).
**18:00** Galiziar janarien dastaketa Herri Eskolako jolastokian.
**19:30 'A** Carballeird gaita taldearen kalejira herriko kaleetan
**20:00 'D'** Camara' orkestaren dantzaldia
22:**30** 'Itxaropena' elgoibartar koralaren ekitaldia
23:00 'D'Camara' orkestraren saioa

MAIATZAK 14, IGANDEA
10:30 Meza, hildako galiziar guztien omenez, Santa K ara ermitan
11**:30** Txistularien banda eta 'A Carballeira' taldearen diana
12**:15** Agintarien ongi-etorria 'A Carballeira' gaita taideari
13**:15** 'A Carballeira' gaita taldea Herri Eskolan
**14:30** Bazkario Galiza Etxean herriko agintariekin
**18:00 'A** Carballeira' gaita taldearen agurra
**19:00** Jaien amaiera

# DIA DAS LETRAS GALEGAS



ttbla etuto zazotialvlzal
jatdaff Ratt1 %anZela
itodu tta4f" etfria,éap

CASA CULTURAL DE GALICIA ELGOIBAR

Txiki BA'''TN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 63. GEHIGARRIA






Bigarren hiruhilabetearen bukaeran Herri Eskolako 3. 4. 5. eta 6. mailako ikasleek irteera polita egin zuten Donostia aldera. Goiko argazkietan ikus daitekeen bezala kirola egiten pasa zuten eguna. Goizean, Andoainen dagoen golf zelai batera joan ziren eta han bertako monitoreekin golfean ikasteko eta jokatzeko aukera izan zuten. Gero, Donostian bazkaldu eta 'Txuri-Urdin'era joan ziren izotz gainean irristatzera. Oso irteera dibertigarria izan zen eta bat baino gehiago izotzetan erori eta ipurdiko minarekin itzuli zen etxera.

## te

Ongile eta eskuzabal itxurako gazte kankailu indartsu batek esaten dio beste bati:

- Nik beti nahiago izan dut ematea hartzea baino.
- Benetan txalogarria; baina esaidazu, zertara dedikatzen zara?
- Boxeolaria naiz!



# Jakitunen eskutik

## "Ez, ez eta ez"

Gaztetxoek gurasoen aginduei ezetz erantzuten konpondu ohi dituzte gauza asko, edo hala uste dute behintzat. Autonomia lortzeko bide bezala erabiltzen du haur askok negazioa.

Eguraldi hotza egin eta amak jaka janzteko eskatuz gero, ezezko borobilarekin erantzuten du semeak edo alabak. Egun batean jaka izango da aitzakia, hurrengoan ez du etxean prestatutako bazkari gozoa jan nahiko edo ez zaio gustatuko amak paper dendatik ekarri dion koaderno berria. Kontua ezetz esatea da.

10 urte ingurura arte gurasoek esandakoari irriparrez baietz erantzutea eta amak edo aitak egindakoa pozez onartzea oftizkoa izaten da. Baina haurrak adin batera iritsitakoan badirudi sistematikoki ezetz esatera ohitzen direla. Gurasoei esperantza bakarra geratzen zaie; "noizbait bueltatuko da berriz baietz esatera".

Gauza guztiei ezetz esango die: "ez dut nahi", "ez daukat gogorik", "zuk esan duzun hori ez da esan duzun bezalaxe gertatu". Ezezkoa borobila eta berehalakoa izaten da gehienetan, beti ez bada. Pentsatu gabe esaten du ezetz, galdetutakoari erreparatu gabe. Dena den, zai egonez gero, agian hasiera batean ezetz esan arren ideiaz aldatuko dute.

Ulergaitza badirudi ere, gurasoek pazientziari kolpe egin eta noizbait baiezkoa eman arte zai egotea beste erremediorik ez dute izango.

Batzutan onena umeak ezetz esaten duenean bere jokoari segitzea da. lehengo adibidearekin jarraituz, jaka janzterik ez duela nahi esaten badu, amak arrazoi duela esango dio eta horretarako bere maila berean jarrita bero egiten duela esan diezaioke edo baita bera gaztea izanik hotzik ez duela edukiko ere. Honela semeak edo alabak ama tontokeriak esaten ari dela pentsatuz, jaka hartuko du.

Denari ezetz esatearekin diferentzia eta autonomia lortu nahi dituzte gaztetxoek, amak edo aitak esandakotik aparte egon nahi dute. Gauzak bakarrik, beren kasara, egin nahi dituzte eta ez gurasoen aginduz.

Ezezkoa, beraz, menpekotasunetik askatzeko nahia da. Ezetzetik baiezkora pasatzeko denbora laga behar zaie gaztetxoei. Epe jakin batean hartu ohi duten jarrera dela pentsatu behar dugu eta denborarekin pasatuko zaiela. "Ez, ez eta ez" esatetik, "bai, bai eta bai" esan arte zai egon beharko da.

**Iturria:**
***Mujer de* hoy aldizkaria**

# Zer iritzi daukazu ..........eif4r4o ei buruz?



getyl j4hyr4 ot4io a4 joks144;e4 /4444/44 9, 043, mh.44/£44 a4 0,04,
'4,41tbuijazt 44,:4 eilloatt 1,m44 4it44,y4,

JAVIER FERNADEZ, 9 urte



vltuae, `(4~,' /444 A44. $6144 14,z4t /41/444, die '444,de,
04h,44., 9, A4 44~! if41344

CARLOTA CASTRILLO. 11 urte.



Hitz zatarrak entzuten 14t.. Af:04,4441., a4 tarjetak
ateratzen ditu.

JABIER SARASUA, 6 urte

okkkkoalkokkkkkkkelkket\



**NATALIA SIDLID7ALAL**
**8 urte**

# Gaide debalde

1. Zein da zure iolasik gogokoena?
2. Noren autografoa lortu nahi zenuke?
3. Zeini emango zenioke musu bat?
4. Eskolako zein ikasgai gustatzen zaizu gehien?
5. Zer oparituko zenioke lagun bati?
6. Moztuko al zenuke ilea zerora?
7. Zertan lan egin nahi duzu handitzean?
8. Gustuko izen bat.



**JON IDEREZ-CORTES**
**13 urte**

1- Raketekin tenisian jolastia gustatzen jata.
2- Pipi Calzaslargasena.
3- Amatxori.
4- Euskara, errreza dalako. Matematika ez jata gustatzen.
5- Jertse gorri bat.
6- Ez, ile luzia eukitzia nahixao dot.
7- Andereaa, nere ama bezela.
8- Naia.

1- 13 urte
1- Partxisa.
2- Martin Fiz atletarena.
3- Nere amari.
4- Gimnasia.
5- Estutxe bat boligrafuekin.
6- Ezta pentsau ere, motzegixa da.
7- Kazetaria izan nahi nuke.
8- Josu izena beti gustatu izan zait.

## Zer da leed«/Pla. . . .



Ikara ematen duen sentimendu bat da.

**SILIQUA CUILISLE 7 urte**



Beldurra gauza harrigarri bat da. Nik gauean beldurra sentitzen dut.

**MILIA■M AROSA 1C CJIRTU**



Sentimendu txar bat da. Beldurra sentitzen duzunean oso gaizki pasatzen duzu.



Beltza da. Bakarrik zaudenean barruan sentitzen duzun kilima izugarna.

**EDIUALLO IFALLMIAL 7 IURTE**



Pelikula beldurgarri bat ikusten duzunean barrutik sentitzen duzun dardara.



Zure barruan sentitzen duzun tripako min izugarria.

**ERANTZUNAK: 1 -** Bi unlxi musukatzen 2- Zer moduz doaz aurten zure ikasketak? **4-** Olagarroa, kandelaren argia, itsasontzia.

1110 .1!u!za cuauni
110 inDu !pci! 040 WCp.
Tuoz! onijp.la launi
'41) [1]u!p.in up4a19
up!dza uiaz uppo —

-oRzn6 np uazialoci
Jaisoi mazpos uo!pupLi
Dia6 ppvi llo6ounzi —

op **JON 'urpodai**
1110 rip U13111r1C1
`zpJaci [s]olacios ·ozinclio6
:110 olacip6 lp.inzak —

)1131111ZROUIStr **4.**



| | |
|---|---|
| 4 0 i- | 4-- S |
| *--- b | .— h |
| 4-- 13 | 4 £' |
| 4 t | 4- z' |
| 1-- 9 | 4-- 7.- |

**naupaq**
**unici uatqa** **3.**



-„ueztaisn6
a.tapci 4pizloz za
lzp.Jeci ImploweiDUJ
Iueolo6o8
In4p louDirils3
·0l06o6 4n4ip zo
ruoitio6

**n**
**IIVIIVO**

II ·rna-zpu ual!Be npadso
loodye izpJeci 'uapqn6
ole 'Dp onpouliojui
op6smii uop!DZ
uezp4sn6 uopiog ·Inp
alsn oppnp mirtipup5
DUOp U13.101DWD
oprilson ·opuo„

**CIID 30U01'**









**i,nbarp niappth Jez 2.**

**„i1D4 Dp 1110Z 1.**

# Inimus» zieze Diasacicuoquaa

*Joseba Esnaola elgoibartarrak 34 urte ditxu. Biologia ikasketak ein arren, beste arrazoi bat dala medio ekarri dogu gure artera. Izan ere, oin dala bi urte kuadroak margotzen hasi zan, eta bere kuadroen erakusketia ein berri dau Kultur Etxian. Domekara arte, maiatzak 14, egongo da zabalik erakusketia.*

JOSEBA Esnaola

egb

# "Nere kuadruetako gai nagusixa bakardadia *dan*

**— Noiz hasi zinan marrazten?**

- Ikastola garaixan ein nitxun lehen marrazkixak. Gero, unibersidadian nauala, berriz ere margotzeko gogua sortu jatan, baina piska bat serixuau duela pare bat urte inguru hasi nintzan. Donostiako Katalina de Erauso Arte Eskolan eman naban izena eta han ikasi nitxun marrazteko teknika ezberdinak.

**— Egin dozun lehenengo erakusketia izan da, ezta?**

-Bai, halaxe da. Nere lehen 12 edo 14 kuadruak margotu ostian, beitxu eta ein nabana gustau jatanez, emozionau ein nintzan. Erakusketaren batian jarri biharko nitxuzkeIa aipau zian batek baino gehixok, eta halaxe ein dot.

**— Zela definitxuko zenduke zure erakusketia?**

- Estilo askotako kuadruak daude nere erakusketan, baina gai nagusixa bakarra da; bakardadia. Horixe da ein ditxudan kuadruak ikusitxa eta jendiak esandakotik atera doten ondorixua. Nik ez naban bakardadiaz hitz egin nahi, baina berez urten jata.

**—Eta, bakardadiak ez al zaitxu kezkatzen?**

- Ez nau kezkatzen, baina pentsatzeko motibuak ematen dizkia. Argi euki bihar da bi bakardade mota daudela, bata bilautakua eta bestia ez. Neria ez da izan bilautakua, etorri ein jata. Dana dala, bakardadiak lasaitasuna ematen dau eta beti dao bakardadetik ihes eitxeko ilusiva, bestela ez ginake biziko-eta.

**- Ze estilo erabiltzen dozu?**

- Estilo figuratibua da nagusi nere lanetan. Errealidadian eta imaginazivan arteko mugak aztertzen saiatzen naiz, nere pentsamenduei pintura forma ematen, alegia. Estilo abstraktua, figuratibua edo espresionismua erabiliz zailaua da jendiangana iristia. Errealisinuakin adibidez, errazaua da komunikazio hori, margolarixak adierazi nahi dabana begi bistan baitao.



**— Zer da marraztia zuretzat. Ze ematen dizu?**

- Idaztiakin gertatzen dan bezela, marraztia espresio modu bat da. Gainera, espresau nahi izan dana hor geratzen da edozeinek ikusteko aukeran, baitxa norberak ere. Denbora piska bat pasatzen danian norbere lana aztertzeko aukeria eskaintzen dau pinturiak, hau da, kuadrua pintau zanian zer pentsatzen zan jakiteko aukeria ematen dau eta baitxa pentsatzeko eran eboluziva ikusteko ere. Autoanalisi moduko bat ein leike kuadruak aztertuz.

**— Poesiak ere ipini ditxuzu kuadruen onduan, ezta?**

- Bai, amak emandako ideia bat izan zan. Kuadruetan agertzen dana poesiekin erlazionau dot, baina kasu hontan edertasuna eta maitasuna izan dia nire poesien inspiraziva, paisaje bat, emakume eder bat...

**— Zein dia zure margolari gustukuenak? Norbaiten influentziarik nabari al da zure marguetan?**

- Van Goghen gauzak eitxeko moduakin, historixiakin eta izaeriakin oso identifikauta sentitzen naiz, nere idolua da. Estiluari dagokionez, Miro, Dali eta Picasso asko gustatzen jataz.






Pedro
Cerviño

Pedro Cerviño 22 urteko elgoibartarra Ingalaterrako Banbury herrian (Oxfordetik gertu) bizi da iazko urritik. Leku berriak ezagutzeko gogoak bultzatuta, eta batez ere ingelesa ikasteko joan zen Ingalaterrara. Carmen Miguel bere neskalagunaren Iaguntza ere ongi etorr̃i zaio, "10 urtez Austrahan bizi izandakoa da eta ingelesez primeran hitz egiten du. Hala ere, azentua dela-eta segituan nabaritzen diote ez dela hemengoa. Gainera, gu bizi garen herrikoek nahiko azentu itxia dute". Osterantzean, Pedroren eta Carmenen bidaiak abentura kutsu handia izan du, "Londresera iritsi ginenean ez genekien non bukatuko genuen. Lehen 5 egunetan dokumentuak legeztatu geInituen Londresen. Ondoren, autobusa hartu eta Banbury herrira iritsi ginen. Zorte handia izan nuen hemen, ailegatu eta 3 egunera bilatu bainuen Iana, Elgoibarren egiten nuenaren antzerakoa gainera". Ingalaterrako zenbait hizi bisitatu dituela ere esan digu, "Oxford, Straford... oso politak dira, ingelesek aintzinako eraikuntzak eta gazteluak oso ondo zaintzen jakin izan baitute". Bestalde, bizikletan ere ibiltzen dela esan digu, "hamaika urtez ibilia naiz txirrindularitzan, baina, hala ere, izan dut sustofixoren bat hemen denak eskubitik ibiltzen baitira, ez da erraza ohitzea".


=11-
VIAJES ner BIDAIAK
311L3RO EXPeESS
**bidaia agentziak babestutako atala**
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12


# G O G O R A T U Z

## PurificaciOn Carrera Garcia

855-1] 09111



• 1930eko urtarrilaren 10ean jaio zen. Orenseko Baños de Morga herrian. Bi anai arreba izan ziren, bera zaharrena, Umetako ikasketak Ronqui de Bide auzoko herrian egin zituen.
• 11 urte ingururekin utzi zuen eskola. Nekazari etxekoa izanik, etxean, baratzean eta soroan lan egin ohi zuen.
• Eibarren bere hen-iko Iagunak zituen eta 15 urterekin hona etorri zen. "Retolaza" tailerrean hasi zen lanean. Denbora dexente eman zuen han baina gero "GAC"ra aldatu zen. Han ezagutu zuen senargaia. Mutilak "BH"n lan egiten zuen.
• Beti izan zuen gogoko Eiharko herria, ongi moldatzeaz gain adiskide asko egin baitzituen. 1952an ezkondu zen Galiziako Mazeda herrian bertako Antonio Fidalgorekin eta Eibantra itzuli ziren 3 hilabetetara. Hiiu urtez Eibarren bizi ondoren Elgoibarrem eron̄i ziren eta hemen, 1956an. "Bar Estacidn" ireki zuten, gaur izen berarekin eta leku berean dagoena. Senana "Gabilondo y Cia"n hasi zen lanean.
• Sei seme-alaba izan zituzten. Hiru lehenengoA Eibarren jaio ziren eta besteak berriz, hemen.: Rosa,114' Camen, Jose Ma, Miguel Angel, Sergio eta lgor Fidalgo. Suhiak eta errainak beniz, Ismael Arenas, Joakin Fidalgo, Jaione Juaristi, Kontxi Urain, Gema Astigarraga eta Eneka Ezenano.
• Antonio eta PurifieaciOnek lan asko egin zuten, janariak zerbitzatuz eta aharrean. Familia eder askoa ere hazi zuten eta baita seme-alabei eskola ona eman ere. Famatua eta herritar estimatua egin zen. Purificacidn, izaera alaikoa, sinpatika, pertxenta, sinesmenekoa eta borondatetsua izanik, herriko jendearekin harreman handia zuen. Urte askotan itxi izan zuen taberna hilabeteko jaiak hartzeko eta Galiziara joaten ziren familia, senideak eta ezagunak bisitatzera. Purificacidn sukaldari ona zen eta gogokoa zuen beti familia, lagunekin brometan jardutea eta tabernako jira egitea.
• Egun batean, senide baten ezkontzara ziholrzela, auto istripuz hil ziren Purificacidn eta bere ama, Visitacidn. 1980ko abenduaren l9an hil zen, 50 urterekin.

Juanito Gorostiza




Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
t' 943 82 01 09
Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea
11 20600 EIBAR



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGO1BAR

# Eijgalharko 1. erregionaleko jokalariek liga berlan habsra aga dute eta entrenatzaileak dimititu egin du

## C.D. Elgoibarko zuzendaritzarekin izandako arwoak dira erabaki hau hartzeko arrazoi nagusiak

pa sa den asteko BARREN-en "RegionaIak berriari" izeneko eskutitzean irakurtzeko aukera izan zenuten moduan, Elgoibarko 1, erregionalak aurtengo denboraldia amaitutzat eman zuen liga amaitzeko 3 partidu falta zirenean. Pasa den astebururuko liga partidua jubenilek jokatu zuten. Erabaki gaffantzitsu hau hartzeko hainbat arrazoi azaldu dituzten eskutitzean. Hala ere, Pedrusko talde elgoibartarraren aurka (2000-4- I4ean) jokatu zuten derbia aipatu zuten arrazoi nagusitzat. Erregionalekoek aipatzen zutenez, "atsedenaldian direktibo bat aldageIetan agertu eta klubaren izenean partida galdutzat ematea proposatu zigun era mehatxugarri batean. Jokalariok eta entrenatzaileak aho batez adierazi genuen ez geundela horretarako inola ere prest".



*Gauzak guzliz ez badira aldatzen ez bueltatzea erabaki dute erregionalekojokalariek. Argazkiaren erdian Agustin Alkorta entrenatzalle Ondarrutarra.*

Arazo honi buruzko argibide gehiagoren bila bi aldeekin hitz egitea pentsatu dugu, Agustin Alkorta erregionaleko entrenatzallearekin, eta Julen Konde C.D. Elgoibarreko presidentearekin, alegia. Julen Kondek esan digunez, "presidente bezala, ditugun 562 bazkideei zor diet errespetua eta beraien aurrean azalduko ditut esan beharreko kontu guztiak. Kategoria guztietako ligak amaitu ondoren ekainean izango den batzar nagusian emango ditut azalpenak bazkideen aurrean. Orduan izango dut nire irizpideak plazaratzeko eta salaketei aurre egiteko aukera.

**Erregionalaren bertsioa**

Agustinek, berriz, honako bertsio hau eman digu, `Pedrusko'ren aurkako partidua baino egun bat lehenago, partidua prestatzen ari ginela, Julen Konde presidenteak gure taldeko kapitaina bere bulegora deitu zuen, eta kapitainak esan zidanez partidua galtzeko eskatu zion. Jokalariei ez genien ezer ere aipatu, eta zeukaten guztia ematera irten ziren berdegunera. Atsedenaldian, ordea, Josu Konde, gure taldeko delegatuak, zerbait jokoan al geneukan galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion, hirugarren postuaz gain, ohorea eta profesionaltasuna. Orduan berak nire kurrikuluma potolotzea zela nire asmo bakarra erantzun zidan modu txarrez. Hau entzun ostean, zuk zer nahi duzu? galdetu nion, eta berak guk galtzea nahiago zuela erantzun zuenez, aldageletatik irtetzeko esan nion. Elkarrizketa hau taldeko jokalari guztien aurrean izan genuen. Ez daukat ezer pertsonalik direktibaren kontra, baina nire interesak defendatzea besterik ez dut egin". Azkenik, jokalariek eman dioten laguntzaz eta hartu duten erabakiaz oso harro sentitzen dela gaineratu digu.

# IIIondirak maila galdu du bigarren Iffiltez jarraian eta preferentean jakatuko du

## 0 eta 1 galdu zuen Amorebietaren aurkako partidu erabakiorra

Pasa den zapatuan, hilaren 6an, hil ala biziko partidua jokatu zuen `Haundia'k Mintxetan. 3. mailan mantentzeko Amorebieta taldeari irabaztera derrigortuta zeuden. Jende mordoa bildu zen Mintxetan taldea animatzeko asmoz. "Mausitxa" txaranga ere saiatu zen giroa berotzen, baina ahalegin guztiak alferrik izan ziren 0 eta l galdu baitzuten elgoibartaffek. Beraz, liga bukatzeko partidu baten faltan, maila galdu du `Haundia'k. Bi urtez jarraian jaitsi dira mailaz elgoibartarrak eta datorren urtean



*Argazki hau denboraldi hasieran ateratakoa da. lnor gutxik uste zuen taldeak maila gakluko zuenik.*

preferentean jokatuko dute. **Ju**len Konde C.D. Elgoibarko presidenteak kolpe gogorra izan dela aipatu **digu, "urte** hasieran genituen itxaropenak ez dira inola ere bete. Oso gogorra izan da berriz ere maila galtzea. Orain egoera honetara nola heldu garen aztertu beharko dugu. Presidente moduan nere responsabilidadeari aurre egieko prest nago, 2 **urtetan** bi maila jaitsi ditugu-eta, **Dena** dela, ez **dut** dimisioa aurkeztuko, baina bazkideen esku lagako dut azken erabakia, nik segitzeko ilusioa eta gogoa baitauzkat".

# Estatu osoko 6 talderik onenak Jubenil Nesken Espainialle Eskubaloi Txapeiketa jokatzen ari dira Eigoibarren

## Finala hilaren 14an, domekan, jokatuko da eguerdiko 12:30ean Kiroldegian

*Unceta Elgoibar* eskubaloi taldea jubenil nesken Espainiako Txapelketa jokatzen ari da Elgoibanen. Leonen jokatu zen sektorea irabazi ostean lortu zuten elgoibartarrek Espainiako Txapelketaren azken fasean aritzeko txartela. Azken fasea Elgoiban̄en jokatzeko kandidatura aurkeztu zuten eta baita lortu ere. Asteazkenean, hilaren 10ean hasi ziren partiduak Olaizaga Kiroldegian. Bertan, estatu osoko 6 talderik onenak ari dira nor baino nor bi taldetan banatuta. Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuek jokatuko dituzte finalerdiak zapatuan, hilaren 13an. *Uncetako* neskak, *Juventud Leganes,* Madrilgo txapeldunekin eta *Atsa Elda,* Balentziako txapeldunekin parekatuta daude. Lehen partiduan ez zuten zorterik izan. 23eta 26 galdu zuten balentziarren aurka. Bigarren partidua erredakzioa itxi ondoren jokatu zen. Hau irabaziz gero sailkatzeko aukera zuten.

Ales Arrieta entrenatzaileak azaldu digunez, "azken fasean egotearekin aurtengo helburua beteta dago, baina partidu bakoitza final bat modukoa izango denez, edozer gertatu daiteke". Bere ustez, Eldako Valentziarrak eta Ro' Casako kanariarrak dira txapelketa irabazteko faboritoak, "maila oso altua daukate, ohorezko mailan dauden taldeen filialak dira eta nagusiekin entrenatzen duten jokalariei asko igartzen zaie. Kanariarrak iazko txapeldunak izan ziren, gu berriz, 5. izan ginen". Oihana Apel1anizen lesioa ere aipatu digu Alesek, "taldeko jokalaririk onenetarikoa da, Espainiako selekzioarekin ere jokatu du aurten eta bere falta nabariko dugu. Agian, taldekideentzat gehiago saiatzeko ere balio dezake, ordea".



*Txapelketaren aurkezpena astelehenean, hilaren 8an, egin zuten Ezkerretik hasita: Ales Arrieta* (Uneetako *entrenatzailea), Pedro Unceta (Unceia enpresako zuzendaria), J. Ignacio Jauregi (* Sanloko *presidentea), Gillenno Garate (Alkatea), Miren Madariaga* (Sprilurekoa) *eta Ignacio Mugerza (Kirol Patronatuko zuzendaria).*

## • Zikloturisten irteera maiatzaren 14an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 14an, izango da 19. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirrindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Deba, Mutriku, Ondarroa, Berriatua, Markina, Bolibar, Bolibar gaina, Munitibar, Urrutxua, Zugaztieta, Gernika, Kortezubi, Ereflo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 120 km. dira. Ibilbide motza, berriz, honakoa izango da: Elgoibar, Deba, Mutriku, Ondarroa, Berriatua, Markina, Bolibar, Bolibar gaina, Munitibar, Aulestia, Gizaburuaga, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 95 km. Nahi duen odonork har dezake parte.

## • Urrezko 4 domina, Alarredco 1 eta bronlzezko 1 Elgoibarko Ibar IIEko ikasleentzat

2000ko maiatzaren 7an (domeka), goizeko 10:00etan hasita, Oiartzungo kiroldegian jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Sanbo Txapelketa, alebin eta infantil mailan. Elgoibartarrek emaitza bikainak lortu zituzten, 4 ikaslek Gipuzkoako txapeldun geratzea lortu baitzuten, eta era berean, beste bi ikaslek bigarren eta hirugarren postuak eskuratu baitzituzten.

## Emaitzak

• INFANTIL NESKAK •
Zuriñe Polo ............ URREA
(44 kg-tik behera)
Maria Idiakez ZILARRA
(57 kg-tik behera)

• ALEBIN MUTILAK 111
Jon Ander Paseual , URREA
(35 kg-tik behera)
Aitor GonzaIez. . URREA
(45 kg-tik behera)
Urtai Fernandez BRONTZEA
(53 kg-tik behera)

ALEBIN NESKAK •
Ana Estevez ........ URREA
kg-tik behera)

# lKirola Eta zarat asteburua izango da maiatzaren 13an eta 14an

### Sentsibilizazioari dagokionez, azken ahalegina izango da aurtengoz

Elgoibarko Udaleko Kirol eta Euskara Sailek, kirol arloan euskararen erabilera sustatzeko sentsibilizazio eta prestakuntza programa bideratu zuten, denboraldi hasieran, "Irabazleak behar ditugu euskaraz denok irabazten dugu" lelopean. Sentsibilizazio eta prestakuntza kanpaina honen azken txanpara helduta, amaiera gisa, "Kirola Euskaraz" izeneko asteburua antolatu dute datorren maiatzaren 13 eta 14rako. Sentsibilizazioari dagokionez, azken ahalegina izango da, aurtengoz. Horretarako, hainbat euskarri prestatu dituzte: pegatinak Eskola Kirolean aritzen direnei banatzeko (Mintxetan larunbat goizean antolatu diren atletismo frogetan pegatinak eta pinak banatuko dira), pinak eta postalak klubetako kirolarientzako (asteburuan Mintxetan eta Kiroldegian izango diren partiduetan banatuko dira) eta pankartak kirol instalazioetan ipintzeko. Beraz, asteburu honetan bereziki, euskara eta kirola lotuz, kirola euskaraz egitera bultzatu nahi dituzte kirolari gaztetxoak.



*Pegatinak, pinak eta postalak banatuko dira Eskola Kirolean aritzen diren neska-mutilen artean.*

# itsasoan lkayakfetan eta bateletan ibiltzeko aukera eskaltzen du Mutrikuko Arraun Taldeak

### `Kayak'etan Saturraranetik Mutrikura trabesiak antolatu dituzte ekainaren 4an eta 11 n

Mutriku Arraun Taldekoak itsasoan arraunean egiteko kanpaina ari dira zabaltzen kostarik ez duten herrietan. Elgoibarrera ere etorri dira eta Arraun Taldeko Iñakik azaldu digu zertan datzan euren eskaintzak. "Mutriku Arraun Taldeko bazkide eginaz (1.000 pta. ordainduz) itsasora joan zaitezke guk erositako `kayale etan eta bateletan. Txalupa bat erosi beharrik gabe eta aseguru eta mantenimendu gastuak ahaztuta, gure itsasertzak ezagutzeko aukera polita eskaintzen dugu".

Horretarako 14 `kayak' dituzte, 7 banakakoak eta 7 bikoak. Txalupa hauek erraz gobernatzen dira eta ez da beharrezkoa arraunean esperientzia izatea. `Yola' edo `batel'etan ibiltzeko auker,a ere izango da. Hauetan esperientzia piska bat behar denez, aurrez ikastaroetan parte hartzea komeni da. Txalupa hauek egonkorrak izan arren, nahiko azkarrak dira. Lehen egurrezkoak ziren, eta kostatik gertu arrantzatzeko erabiltzen ziren. Bestalde, `kayak'etan Saturraranetik Mutrikura trabesiak ere antolatu dituzte. Ekainaren 4an eta 11n izango dira irteerak eta 21 lagunentzako tokia izango da. Gutxienez 15 urte izan behar dira trabesian parte hartzeko. Prezioa 2.500pta.koa da, `kayak'en alokairua eta autobusa barne.



*Argazkian agertzen diren moduko 14 kayak dituzte, 7 pertsona bakarrarentzakoak eta 7 birentzakoak.*

## EMAITZAK

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 24 Urola 14 (Kad. nes.)
El Pilar 24 - Tenomeca Elg. 25 (Kad. mut)
Gaur Elg. 24 - Aloña Mendi 20 (Kad. mut.)
Unceta Elg. 46 - Urola 12 (Jub. nes.)
El Pilar 21- Pneumax Elg. 24 (Jub. mut.)
Urnieta 19 - IMS Elg. 21 (Senier nes.)
Deusto 26 - IMH Elg. 32 (Senier mut.)
Espalniako Eskubaloi Txapelkela
Ro'Casa Remudas 30 - Ermua 26
Unceta Elg.23- Elda 26

### Saskibaloia

Elgoibar S.T. **60** - Salesiarrak 61

### Idarraga Kafeak 3. saria

**HAUNDIko jukalari erregularrena 99/130**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Loren | 35 |
| 2-Aranberri | 33 |
| 3-Castro | 29 |
| 4-Zulaika | 28 |
| 5-lbarluzea | 27 |
| 6-Castillo | 26 |
| 7-Alberdi | 23 |
| 8-Bague | 22 |
| 9-Polo | 21 |
| 10-1. leonardo | 17 |
| 11- Bravo | 16 |
| 12- Diaz | 15 |
| 13- Caro | 14 |
| 14- Mikel | 12 |
| 15- Ruiz | 8 |
| 16- Guarrotxena | 6 |
| 17- Manolo Ramos | 4 |
| 1B- Alkorla | 4 |
| 19-Txasio | 4 |
| 20-Edu | 4 |
| 21-Fernandez | 2 |

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 13**
**15:30** Elgoibar- La Salle (2. kad.)
**17:15** Elgoibar - Zarautz (1. erreg.)
**Igandea, 14**
**12:00** Elgoibar - Real Union (Oho. inl.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Espainiako Txapelkela**
**Ostirala, 12**
**18:00** Elda - Juv. Leganes
**20:00** Ermua - Fuengirola
**Larunbata, 13**
**18:00** A Finalerdia
**20:00** B Finalerdia
**Igandea, 14**
**10:30** 3.eta 4. postua
**12:30** Finala

TOLETXE

TA13ERNA

Peciro Muguruza 8, behea
Tel. 943 74 19 48

maiatzak 17
asteazkena

22:00

UZTAIL OPARO OSTEAN

**POESIA eta MUSIKA EMANALDIA**

Igar Calzada: Ahotsa eta kitarra
Harkaitz Cano: Errezitatzailea
Iñigo Lurgain: Kitarra

Antolatzailea:
**URRUZUNO** Literatur Taldea




# "Poesia Egunar antolatu ditu Urruzuno Literatur Taldeak

Bi poesia emanaldi eskainiko dituzte Toletxe tabernan, maiatzaren 1 7an, asteazkenean bata, eta 24an bestea

Unuzuno Literatur Taldeak `Literatur Astea" antolatzen zuen maiatzean orain arte. Aurten beste itxura bat eman nahi izan diote, ordea, eta "Poesia Egunak" izenburupean poesiari tarte bat egitea pentsatu dute. Hori dela-eta, bi poesia emanaldi eskainiko dituzte. Lehen emanaldia, "Uztail oparo ostean" taldearen eskutik iritsiko da Harkaitz Cano idazleak eskainiko du asteazkenean, hilaren 17an, Toletxe taheman. Baina ez da bera bakarrik etorriko, Iñiga Lurgainek kitzurarekin lagunduko baititu Arkaitzek errezitatuko dituen poesiak, eta Igor Calzadak, berriz. berak konposatutako musika eta ahotsarekin alaituko du saioa. Hiruren artean istorio bat kontatuko digute, abestiak eta errezitaldiak tartekatzen dituen istorio bat, alegia. Gaueko 22:00etan hasiko da.



*Harkaitz Cano idazleak (argazkian) eta Igor Calzada eta Lurgain musikariek poesia errezitaldiak eta musika tartekatuko dituzte.*

Bestalde, bigarren poesia emanaldia maiatzaren 24an izango da Toletxen, baita ere. Kasu honetan, bi elgoibartar izango dira protagonistak: Jon Eugi eta Alberto Gonzalezek "Gaua" taldea aurkeztuko digute. Jonek berak sortutako poesiak errezitatuko ditu eta Albertok, "6Nemen9"ko kitarrajole ohiak, poema batzuk kitarrarekin eta beste batzuk pianoarekin lagunduko ditu. Emanaldiari, "Gau sentipenak" izenburua jarri diote, bertan gauaren alderdi ezberdinak erakutsiko dituzte, "bidaia zeruan hasten da, gero Iurrera jaisten da, kale girora, eta azkenik, berriz, ere zeruetara jotzen du" azaIdu digu Jonek. Poesia emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da.

# Romo Garatek Nietische Musefoari burezko liburu bat kaleratu du

Bere anaia Genaroren laguntza izan du liburua egiteko

109 oman Garate Je-"suitak Nietzseheri huruzko "Gizakia (duintasuna)-Jaungoikoa" liburua kaleratu du. Deustuko Unibertsitatean irakaslea den eIgoibartar honek bere anaia Genaroren laguntza izan du liburu hau egiteko eta biek batera prestatu dute argitalpena. Deustuko Unibertsitateak kaleratu du liburua filosofia sailean. Aurrez etikari buruz idatzitako liburuak osatuz idatzi du hirugarren hau. Garatek filosofo alemaniarraren aipamen ugari egin ditu liburuko 600 orrialdeetan. Aurten hemeko dira ehun urte Nietzsehe hil zeIa eta omenaldi txiki hat egin nahi dio Roman Garatek liburuaren bidez. HiI zela mende bat igaro hada ere, oraindik modan dago Nietzsehe. Beraz, Nietzseheren filosofia ezagutu nahi duten filosofo, filosofia ikasle zein oro har gai hauek gogoko dituztenentzat liburu egokia daiteke honako hau.



*Bere heriotzaren urteurrenean ontenaldi txiki bate egin nahi izan dio Garatek Nietzscheri.*



Aste honetako erretmtu zaharra **Ana Mari Iruretak** laga dieu, "Dinamoko" kuadrilakoek Plaza Txikian atera zuten argazki hau 1959. urtean. Etzun berezia ospatzen zuten, kide bat, Manuel Unzueta, "Patxika" deitzen ziotena, Australiara baitzihoan, eta lagunek despedida egitea pentsatu zuten. "Baneo Santander" ondoan zegoen "Barrutia Jatetxeann hazkaldu zuten.

Hona hernen argazkian agertzen direnen izenak. Goiko ilaran. ezkerretik: **Sabin Astiazaran (t), Sabin Beristain, Manolo GB, Luis Irureta** (t), **Jose Arrieta, Florenclo Serrano, Jose Castillo** eta **J. Manuel Ibarluce.**

Erdian: **Manolo Aizpiri (t), Carmelo Fermin Arrese, Pedro Beristain (t),Txomin Kalzakorta, Roberto Clerigue, Jose M. Regil.**

Hirugarren ilaran: **J.Cruz Gabilondo, J.Agustin Munain (f), Juanito Canales, Felix Agirrebeña, Manuel Unzueta, Felix Irureta** (t) eta **Ramon Ecenarro.**



*I. URTEURRENA*

*1999ko maiatzaren 20an, 83 urte zituela hil zeft*

*FELIPE URBIETA GARATEen oroimenez*

*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*

*larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:00etan.*

*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*





*ESKERTZA*

*2000ko apirilaren 29an, 84 urte zituela zen*

*JOSEFA LARRAÑAGA EGUIAren sendiak,*

*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulategia ......... 943 032610
Planning-a ......... 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
O.Y.A (anbuiantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria .. 943 743864
Mendaroko Ospitalea .. 943 032800
Odol Emaileak . 943 743936

**GAFIRAIOAK**

Eusko Trenbideak. .. 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia .... 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua.... 943 744366
Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
Kultura Zerbitzua.. 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua .. 943741008
Udaletxea ........... 943 741050
Udaltzaingoa....... 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra .. 943 741626
Kiroldegia ........... 943 744415
Kontsumo Bulegoa 943 743088
Liburutegia ......... 943 743525
Musika Eskola 943 742145
Mintxeta ........... 943 744315
Parrokia ............. 943 740842
Postetxea ........... 943 741547
Gaztetxea ........... 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoilza.. 943 740296
Zaharren Biltokia ... 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ... 943 74 21 41
HHI (EPA) . . . 943 74 08 80
Herri Eskola ... 943 74 08 79
I.M.H. ............. 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ....... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
Ikastola ........... 943 74 44 41
Plar Ikasteixea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN........... 943 74 41 12
El Diario Vasco ... 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia 943 74 34 74

### 12 ostirala

18:30 ODOL ATERALDIA
Pedro Migel Urruzuno 8an

22:15 ZINEA
"Las normas de la casa de Ia sidra"

### larun ata

13:00 AMNISTIAREN ALDEKO MARTXARI ONGI-ETORRIA
San Antolineko bide gurutzean

10:30 ATLETISMO FROGAK MINTXETAN
Benjaminak eta alebinak
1zen-emateak: Mintxetan

19:30-22:15 ZINEA
"Las normas de la casa de la sidra"

### 14 igandea

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA
Txankakua zubitik
Antolatzailea:
Elgoibarko L.T.

16:30 TXOTXONGILO EMANALDIA
Taldea: Kukubiltxo
Antzezlana: "Txirrikiz" (Euskaraz)
Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
"Las normas de la casa de la sidra"

### 1 astele ena

22:15 ZINEA
"Las normas de la casa de la sidra"

### 17 asteazkena

22:00 POESIA EMANALDIA
Taldea:
`Uztail oparo ostean'
Toletxe tabernan
Antolatzailea:
Urruzuno Literatur Taldea.

### 18 osteguna

21:30 ZINE KLUBA
"El viento nos Ilevar'a"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba
Laguntzailea
Elgoibarko Izarra

### 19 ostirala

22:15 ZINEA
"Huracan Carter"

## 11 NE A



**Zuzendaria: Lasse Halstrom.**
**Antzezleak: Tobey Maguirre, Charlize Teron, Michael Caine.**

### "Las normas de la casa de la sidra"

Homer Wells umezurtza da, baina inoiz ez du familiaren faltarik izan. Izan ere, Wilbur doktoreak maitasunez hezi ditu St. Cloud's umezurtz-etxeko haur guztiak, tartean baita Homer ere. Dena den, Homer hasiz doan einean, Wilbur doktoreak umezurtzekin erabiltzen zituen metodoak zalantzan jartzen hasiko da. Michael Caine aktore ingelesak oscarra jaso zuen fiIme honetan egin zuen lanagatik.

## • Amnistiaren aideko martxa figoihartik pasako da maiatzaren 1 3an, zapatuan

Amnistiaren aldeko martxa bihar, larunbata, eguerdiko 13:00etan iritsiko da San Antolineko bidegurutzera. Ongi-etorria egin ostean, Madalara abiatuko da martxa. Ondoren, "Amnistia osoa, Euskal Presoak etxera" lemapean hainbat ekintza egingo dira Plaza Handian. Eguerdiko 14:30ean herri bazkaria egingo da (eguraldi ona egiten badu Madalan). Tiketak ohiko tokietan egongo dira salgai. Azkenik, arratsaldeko 19:00etan manifestazioa abiatuko da Madalatik. "Presoak gose greban arrunstia osoa" izango da manifestaldiaren lema.

## • ETBko Tarre Busa" umeenlzako saiora joateko sarrerak salgai Kultur Etxean

ETB lean larunbatero eskaintzen den "Barre Busa" Elgoibarko Herriko Antzokira iritsiko da maiatzaren 22an, astelehena, eta 23an, asteartea, iluntzeko 19:00etan. Saioa haur (4-11 urte bitartekoak) eta gurasoentzako da. Sarrera guztiak aurrez salduko dira Kultur Etxean, Euskara eta Kultura Sailetan hain zuzen ere, 100 pezetaren truke. Maiatzaren 16tilc 19ra, goizeko ordutegian 7:00etatik 15:00etara. Eta maiatzaren 20an, larunbata, goizeko 8:00etatik 13:00etara izango dira salgai sarrerak. Beraz, saio egunean ez da sarrerarik salduko Herriko Antzokian. Sarrerek bi bizikletaren zozketan parte hartzeko aukera eskaintzen dute.

## • Reiki Ikastaroa maiatzaren 20an eta 21ean 'Surya` belardendan

Surya belardendak 1. mailako reiki ikastaroa antolatu du. Eskuak erabiliz osasun arazoak sendatzeko metodo erraz eta praktikoa da reikia, hau da, metodo naturalak erabiliz sendatzen ditu gaitzak. Ikastaroa maiatzaren 20an eta 21ean izango da. Larunbatean 16:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago jaso edo izena emateko 943 74 25 34 edo 626 79 50 24 telefonoetara deitu.

## • Gaur, hilak 12, odol ateraldia

Gaur, barixakua, odol ateraldia izango da Pedro Migel Urruzuno San. Ohi bezala, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean egingo dira ateraldiak. Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak odola ematera animatu nahi ditu 18 urtetik gorako guztiak.

## • 30 orduko akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak 30 orduko akuarela ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 15etik ekainaren 2ra arte luzatuko da. Ordutegia, berriz, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da. Ikastaroa egin nahi duenak Egur Arte Tailerrean eman dezake izena (Ubitarte Plaza z/g). Izen-emate ordutegia: arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

## • Argazkien aurrenwspenari Imrtrzko ikastaroa eskainiko du Ongarri Argazki Kolektiboak

Jose Ronco irakasleak argazkiaren aurreikuspenari buruzko ikastaroa eskainiko du maiatzaren 20an. Argazkilariak argazkia atera aurretik burutzen duen Iana da aurreikuspena; begiratzea, ohartzea, aztertzea... Argazkilariak enkuadrea, argia, konposizioa doitu eta botoia sakatu aurretik jakin behar du nolako argazkia bereganatu nahi duen. Ikastaroan Ongarri Argazki Kolektiboko bazkideek bakarrik har dezakete parte. Ikastaro egunean Elgeta ingurura joateko asmoa dutela adierazi digute, goizeko 9:00etan irtengo dira Eroskiko rotondatik eta bakoitzak bere ekipoa eraman beharko du. Prezioa 2.000 pta.koa da. Izen-ematea eta informazioa 943 74 23 01 (Jokin Martinez) telefonora deituz.



El • • • • • • • • al • • • • • • • • 11 11 • • 11 IIII • 111

h"4

r*"'

41 11 i:51



Z1 Pol O :21

**Zuzendaria: Abbas Kiarostami.**
**Antzezleak: Bezhad Duurani, Shad Dareh.**

### "El viento nos Illevara"

Filmaketa taide bat Kurdistaneko herrixka batera doa, zonalde irandarrera konkretuki. Henixkako atsorik zahanena (100 urtetik gora ditu) hiltzera doala jakitean, espedizio buruari interes berezia sortuko dio notiziak. Pelikulak herri tradizional itxi bateko intimitatera hurbildu nahi du ikuslea. Beste modu batera esanda, zibilizazio aufferatuetatik urruti dagoen lurralde baten ariana erakutsi nahi digu, hau da, argitasuna eta natura pil-pilean dauden lurralde edeffa.

El • 11 • • IN • • • • • 111 • 111 REZ 111 • 1111 • 11 •

## TXANDAK

**FARMAZIAK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 13 | *Etxeberria Zabaleta (Santa Ana kalean) | |
| 14 | *Etxeberria Zabaleta (Santa Ana kalean) | |
| 15 | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean) | |
| 16 | Escal | Escala |
| 17 | Bidasolo | Bidasolo |
| 18 | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |
| 19 | Fernandez | Fernandez *(eguerdiko 2ak arte) |

**ESCALA:** Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 **16 38**
**J. IGNACIO FERNANDEZ**
Herriko enparanta 4,
Garagarza.Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
**14 igandea Fotero**


tarjeta
gaztekutxa
txartela
Maestro
Noiz arte balio
Cadaca final
EURO 6000
"BIzitza
abentura handi
bat duzu. Eta zuku osoa
atera nahi badiozu,
hementxe daukazu Gaztekutxa
txartel berria. Doakoa da, handik eta hemendik
lasai asko ibiltzeko erabiI dezakezuna, eta denetarik
egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera
emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte,
erosketak rnusutruk egin ditzakezu 'Dohainik Erosi'
sustapenaren baitan."
Besterik behar, ala?
rwww.gattekutmanet
e-mail gaziekutia@kutxams
900 4D 41 42
Egin klik! hemen,
aberrturan jarraitu eta sariak
irabazi ahal izateico.
gaztekutxa

# GREMIOEN GIDA

Grernioen gida honetan azaldu nahl baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

BIENA
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
"a• 943 74 31 16

GARCIA
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
943 74 32 38

LODOSO
Lei hoak
Ermuaranbide, 16
z" 943 74 34 90

SORALUZE
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
'zr 943 74 36 34

ULAZIA
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
1T 943 74 05 47

ZABALA
Etxeko erreformak-eribalajeak
Deba kalea, 16
n' 943 74 03 96

## 1©LAM DUAK

GLAS CONTROL S.L.
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
tr 943 74 30 94

## ITURGINTZA

Santa Ana, 5
'8' 943 74 17 61
12 689 04 92 06

JAVI
Erretxindi, 1
*21 608 77 29 32

ONGI
Urasandi, 8
17 943 74 10 82

PAGOAGA
San Antolin, 13
943 74 02 79

TELLABIDE
Azpilgoeta, 19 mENDAFIO
943 75 50 62
"Er 607 75 50 62

ZALDUA
Urasandi, 26
z' 943 74 05 30

ZUBIZARRETA
Ubitarte, 5
943 74 07 89
`a 608 14 30 40

## PrZ)12r111aMM:(<

JESUS M[1] GABILONDO
Ubitarte, 4-5 esk.
943 74 45 99

## PINTURAK

IPI NICA
Foruen enparantza, 4
943 74 04 40
.23. 607 74 04 40

## 11E2R,1_TATEA

ARAMAR
Morkaiko, 1
w 943 74 12 80

AZPELETA
San Frantzisko, 51
z' 943 74 12 38

BETI ARGI
Errosario, 6
Tr 943 74 16 44

URZELAI
Santa Ana, 12-14
z° 943 74 13 76

## U11117111[ITEM

ANTONIO MARKEZ
Urasandi, 24
.13' 943 74 34 18

ASKETA
Osio, 7 DEBA
tr 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ
Urasandi, 24
s' 943 74 29 87
689 58 47 23

IPINTZA
Trenbide, 25
17 630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97

*Wir*